

Artikutzako ttanttak



Artikutza
Natura

Telefona: 690 720 264
(Astelehenerik ostiralera, 10:00 - 16:00)
www.donostia-artikutza.org
artikutzanatura@donostia.org

3

Zenbakia
2012ko Udaberria - uda



ELKARRIZKETA

Jorge González Esteban.....4

HARITIK TIRA

Artikutzako aterpetxea berriro martxan.....7

ARTIKUTZA IRUDITAN

Pagolletatik.....8

BILDUMARAKO

PAGOA *Fagus sylvatica*10

BARRU-BARRUTIK

Udaberri-udak dakarrena.....11

ARGAZKI GALERIA



Ikarrizketa

Jorge González Esteban.

Formazioz biologoa, eta lanbidez ingurumen aholkularia. Hainbat administrazioentzat ingurumenaren kontserbazioari lotutako gaietan ari da lanean. Artikutzara hurbildu izan da Añarbe ibaiaren goi-ibarra eta bereziki muturluzea ikertzera. Azken 20 urteetan muturluzearen biologiari buruzko hainbat ezaugarri aztertzen aritu da, bere populazioen jarraipena eginez eta desgertzeko zorian egotera bultzatu duten arazoak ezagutzen.

Argazkiak: Jorge González



Galemys pyrenalicus

Jorge, aurkez iezaguzu muturluzea: non bizi da, zertaz elikatzen da, zein ohitura ditu ...

Muturluzea ugaztun txikia da, 70 g besterik ez du pisatzen. Zizare bila larreetan zuloak egiten aritzen diren satorren lehengusua da, baina orain dela denbora asko, dieta aldatzea erabaki, eta uretako intsektuez elikatzen hasi zen. Eta hortxe dabil, ur ertzean lo kuluxkak eginez eta uretan elikagaia bilatuz. Gautarra da, azkarra, eta ikusten zaila. Animalia berezia da, mutur luze eta oso mugikorrarekin, aho handia, atzazal luzeak ... konparazio bat egitearren, "gure ornitorrinkoa" dela esan genezake.

Zein da bere banaketa?

Duela zenbait milioi urte "besterik ez", muturluzeak ia Europa osora zabaltzen ziren, eta hainbat espezie ezberdin zeuden. Gaur egun, espezie horietatik bi besterik ez dira geratzen, errusiarra, eta gurea, piriniarra, penintsulako iparraldean aurkitu dezakeguna.

Zergatik erakartzen zaitu muturluzeak?

Espezie enblematikoa da, endemismo bat, ikustea zaila den "tipo bitxia". Ugaztunak interesatzen zaizkion edonor erakartzeko osagai guztiak dituela esango nuke. Eta egia esan, bertatik bertara ikusita ez du huts egiten. Ikusteko aukera izan duten guztiek, gure lana ezagutzera hurbiltzen diren guztiek, gauza bera errepikatzen dute: "Zein animalia polita, baina zein txikia!".

Nola ikusten duzu egoera Euskadin eta Nafarroan?

60-70 hamarkadetara arte ohikoa zen gure mendietako erreketan, eta baita Gipuzkoako itsasaldeko errekaetara ere. Esan beharra dago bere habitata ibai eta erreka garbi eta aldapsuekin lotzen dela, harri koskor eta bloke handiak ugari diren tokiekin eta ibilgu azkar eta zurrumbilotsuak ur geldoagoekin tartekatzen diren tokiekin. Baldintza hauek ez dira zonalde altuetan bakarrik ematen, izan ere, itsas mailatik 1.500-2.000m-ra arteko esparruan aurkitu baititzakegu.

Gaur egun muturluzea "espezie mehatxatua" dela esaten da. Ibaiak sistema hauskorak dira, eta XX. mendean eraldaketa handia jasan izan zuten. Gure ingurunean ibaien degradazioa oso nabarmena izan da, eta honek, lehenengo Bizkaian eta ondoren Araban, muturluzearen desagertzea ekarri zuen. Gipuzkoan bere egoera larria da, eta Nafarroan, populazioek atzerakada nabarmena jasan dute azken 20 urteetan, hartzen duten azalera %50era jaitsiz. Eta are okerrago, ibaiak suntsitzen jarraitzen dugu. Joera negatibo hau muturluzearen banaketa esparru guztian errepikatzen da, eta gure inpaktua zuzentzeari ekiten ez badiogu behintzat, seguruenik, hamarkada batzuk barru animalia honen oroitzapena besterik ez zaigu geratuko.


Hasiera batean, Artikutzak espezie honentzat toki aproposa dirudi, eta zure ikerketak aurrera eramateko aukeratutako toki bat izan da. Lortutako emaitzen aurrerapena emango al zeniguke?

Ia gaur egunera arte kontserbazio egoera onean iraun duten hainbat erreka igarotzen dira Artikutzatik. Baina Artikutzan muturluzeak

beretzat egokiak diren 8km besterik ez ditu aurkitzen. Berehala, errekaetara elkartu eta Añarbe sortzen dute, eta erreka honetan dauden 3 minizentral hidroelektrikoek (Berdabio, Okillegi eta Añarbe), ezinezkoa egiten dute muturluzearen presentzia. Zortzi kilometro oso gutxi dira epe luzera muturluze populazioa mantentzeko. Pentsa genezake muturluzeek, antzeko ugaztunek bezala, populazio handiak izan ditzaketela, baina kasu honetan ez da horrela. Egoera onenean ere, dentsitate baxuak azaltzen ditu (3-4 animalia inguru, ibai kilometroko), beraz, ondo kontserbatutako ibai azalera handiak beharko liriteke bere populazioa mantentzeko. Eta horrelakorik bai ez dugula, ez Artikutzan, ezta beste inon ere. Ondo kontserbatuta geratzen diren ibai zatiak laburrak dira, eta beraien artean isolatuak.

Azkenik, ohartu behar gara Artikutzan hain esanguratsua den urtegia, inpaktu negatibo garrantzitsua dela espezie honentzat. Alde batetik, bere eraikuntzak suposatu zuen suntsiketarekin eta bestalde, ur emari naturalean eragin zituen alterazioengatik. Ur hornikuntzarako erabiltzeak, basoen kontserbazio egoera ona ekarri zuen, baina aldi berean, haran hondoa suntsitu egin zen. Artikutzan dena ez da hain polita.

Neurriak hartu ezean, Artikutzan eta orokorrean Añarbeko arroan, muturluzeari ez zaio askorik geratzen. Minizentral hidroelektrikoak energia garbia sortzeko metodo ezin hobe gisa saltzen dizkigute, baina erreketan sortzen duten eragina ikaragarria da. Emari erregimena eraldatzen dute, hilabete batzuetan errekek lehortzera bultzatuz, ibai ertzetako landaretzaren egitura eraldatuz eta ibaietan bizi diren organismo



Elama erreka

guztiak baldintzatuz. Eta dakigunaren arabera, ihes egiten lehena muturluzea izaten da.


Orokorrean, zein da muturluze piriniarraren egoera?

Aipatu dudan bezala, espezie honen gainbehera orokorra da. Orain dela gutxi Sistema Zentraletik eta Iberiar Sistemako hegoaldeko mendietatik desagertu da. Portugalen, esaterako, hartzen zuen azalera erdira murriztu da azken 30 urteetan. Muturluzeak etorkizun beltza du.



Desagertzeko zorian dagoen espezie honi laguntzeko, zein mezu helarazi behar zaie administrazio eta partikularrei?

Ingurune naturalaren kontserbazioa, horrela esanda, gauza berria da. Gure ingurumen legediak 15-20 urte besterik ez ditu. Oraindik indar handiagoa dute ekoizpen interesek, biodibertsitateak baino, eta biodibertsitatea ez da baliabide baliotsu kontsideratzen. Instituzioek badakite zeintzuk diren beraien kompetentzia eta ardurak, baina gure ibai eta basoen alde egin behar duen administrazio sailari ez zaio behar beste baliabide eskaintzen edozein prezioan egurra, elektrizitatea edo edonolako onura "ukigarriak" ekoiztu nahi dituzten boteredunen aurka egiteko. Eta hiritarrek lo daude, anestesiatuak. Informazio gehiegirekin, eta errealitateari buruzko geroz eta jabetza gutxiagorekin. Horrela doakigu.



Artikutzako aterpetxea berriro martxan

Imajina al dezakezu autoen zaratatetik urrun, uraren soina, txorien kantua eta igelen krua-kruak besterik entzuten ez diren tokian gaua pasatzea nolako izan daitekeen? Orain, 2011ko urte amaieratik, Artikutzako aterpetxeak eskaintzen du horretarako aukera, denbora batez publikoari itxita egon ondoren berriro martxan jarri baita.

Urtegiko presa eraiki zen garaian(1947) etxebizitza izan zen, eta 1987tik aterpetxe bezala funtzionatu du. 2009an ordea, egokitzapen lan batzuk egiteko itxi egin zen. Denbora honetan, sukaldea handitzeaz gain, suteen eta gas isurien aurkako segurtasun sistemak ezarri dira, besteak beste.

Aterpetxeak 3 solairu ditu, 32 pertsonentzako oheak, beharrezko guztiaz hornituta dagoen sukalde berritua, jangela eta egongelatxoa, komunak eta dutxak, eta soto handia, bertan jolasteko edo pinponera aritzeko. Eta baita urtegiara begira dagoen terraza ere!

Artikutzan eta naturan guztiz barneratzeko, esperientzia zoragarria izan daiteke Artikutzako aterpetxeak eskaintzen duena: Artikutzako baso zabalera handietan presarik gabe ibili, txoko magikoak ezagutu, postaletakoak diruditen paisaiei argazkiak atera, hirietako argirik gabe gauzez zeruko konstelazioak behatu, eta pazientzia izanez gero, Artikutzan ohikoak diren basurde eta orkatzen arrastoak jarraitu ... zalantzarik gabe, ingurumenarekin kontaktuan egoteko parada bikaina.

Asteazken zehar Natur Eskolako programa egitera datozen hainbat ikastetxetako ikasleek erabili ohi dute aterpetxea. Bertan, ingurunea ezagutzuz, hau baloratzen eta maitatzen ikasten dute eta hauentzat, Artikutzan gaua pasatzea bai dela abentura!

Ume naiz helduentzat, esperientziak merezi du. Aterpetxea osorik alokatzen da, 10 eta 32 pertsona arteko taldeei: Familiei, lagun koadri-lei, mendi edo bestelako taldeei, mendiaz gozatu, deskonektatu, kirola egin, natura ezagutu edo deskantsatu nahi izanez gero.

Naturarekin kontaktuan asteburua pasatzeko plan bila bazabiltzate, Donostiatik kilometro gutxira baina hiriko presa eta zaratatetik urrun, Artikutzako Aterpetxea aukera ederra da.





Prezioak kontsultatzeko, informazio gehiagorako edo erreserba egiteko:

www.donostia-artikutza.org

artikutzanatura@donostia.org

943 55 5431 / 690 720 264



Argazki egilea: Margi Iturriza



bilduma fitxa



PAGOA *Fagus sylvatica*

Latineko *Fagus* edo grekeratik *phegus* hitzetik eratorritako hitzak, "jangarria" esan nahi du. Fagaceae familia handi honetakoak dira haritz eta gaztainondoak ere.

Euskal Herrian oso hedatua dagoen zuhaitz hau, duela 3800 urte iritsi omen zen Kantauri aldeko mendikatera Karpatoetatik zabaltzen hasi ondoren. 300-500 bat urte bizitzera hel daitekeen zuhaitz eder hau, 25-40mko altuera eta 1,5 metroko diametroko zabalera izatera iritsi daiteke. Isolaturik bizi diren zuhaitzek, kopa borobildua, eta azpitik adarkatzen hasten den enborra izaten dute, aldiz, baso barnean daudenek, enbor luzeak eta goi aldean adarkatuak izaten dituzte. Sustraiak ez dira oso sakonak izaten eta menditik buelta bat ematean iragarriko duzu hori, haizeteek botatako zuhaitzetan erreparatu besterik ez duzu.

Fruitua ematen hasteko 25 urte baino gehiago izan behar ditu zuhaitzak eta ez ditu urtero ematen. Muxarrek, katagorriek, azkonarrek, sagu eta eskinosok asko preziatzen dituzte udazkeneko pagoaren hazi koipetsuak; baita gizakiak ere, haziak txikitu ondoren, ateratako olio erre eta argiztatzeko erabiltzen baitzuten.



Jesus María Rubio

Artikutzan batik bat pago lepatuak topatuko dituzu, XIX. mendean ontzigitzan erabiltzeko edo egur ikatza egiteko erabiliak izan zirenen testigu biziak. Argimutil erraldoi itxurako zuhaitz hauei adarrak 10-15 urtetik behin kimatzen zitzaizkien, eta horrek eman die itxura berezi hori.

Pagadiak baso dentsuak osatzen dituztenean, behe baso oso pobrea izaten dute, eta arrazoi bakarra ez da hostoek sortzen duten iluntasuna; izan ere, ematen duten itzalaz gain, pago hostoek beste landare batzuen hazkuntza oztopatzen duten substantziak jariatzen baitituzte.

Leku hezeak, prezipitazio handikoak, lainotsuak eta freskoak maite ditu eta lurzoru fresko emankor karedunak gogoko izan, azido edo silizioetan bizitzera ere ohitu da.



Iñaki Uranga

Udaberrian ernetzen hasten diren hazi guztietatik, gutxi iritsiko dira zuhaitz bihurtzera. Begira zein desberdinak diren lehenengo hosto edo kotiledoiak!!



arru barrutik

Udaberri-udak dakarrena:


Artikutzan garai bakoitzak bere ezau-garriak ditu, eta ikusgarria da hilabetez hilabete paisaia nola aldatzen den antzematea. Jarraian agertzen dira hilabete bakoitzari dagozkion sekretutxo batzuk:

Udaberri-loreak nonahi loratzen, udaberrian sartzen garenaren seinale.



MARTXOA

Basoan okilen maitasun deiak entzuteko garai ona da. Alde batetik bestera dabilzta, enborretan mokoarekin egindako zuloetan habiak prestatzen.



APIRILA

Kaskabeltz handiak garai honetan jartzen ditu arrautzak; zentimo bateko txanponaren tamainako arrautzak dira!



MAIATZA

Udako fruituak hasiko dira. Basa-marrubi zapoetsuez gozatu ahal izango dugu!



EKAINA

Txilarra loratzen denean, paisaiak kolore purpura ikusgarria hartzen du.



UZTAILA

Hilabete amaieran hurrizaren fruituak agertzen dira, uda amaitzen ari den seinale.



ABUZTUA

argazki galeria

Artikutzan atera duzun argazki polit edo bitxi bat hemen argitaratua ikusi nahi baduzu, bidali helbide honetara: artikutzanatura@donostia.org. Argazkiarekin batera zure izen-abizenak, ateratako lekuaren izena, data eta argazkiaren izenburua jar itzazu.



Izenburua: Zerbait emango?
Tokia: Beldurra galtzen dute txantxangorriek negu partean.
Egilea: Margi Iturriza



Izenburua: Egunsentia
Tokia: Bianditzeko gaina.
Egilea: Ana Urrutikoetxea



Izenburua: Ez nauzu harrapatuko
Tokia: Basoan
Egilea: Jesus Rubio



Izenburua: Barreiatzeko prest
Tokia: Larrean
Egilea: Jesus Rubio

Artikutzako Ttanttak buletina jaso nahi baduzu bidali zure datuak (Izen abizenak, helbide elektronikoa) artikutzanatura@donostia.org helbidera eta posta elektroniko bidez jasoko duzu.

